



AKTEA
BERMEOKO UDALEKO OSOKO BILKURA
(2024-10-22/10)

Bilkuraren izaera:	Ez ohikoa
Deialdia:	1. deialdia
Data:	2024-10-22
Lekua:	Irakaskintza kalea 14-16 (Udaletxearen egoitza)
Hasiera-ordua:	08:01
Amaiera-ordua:	08:30

Bertaratuak

Alkate-Presidentea: Nadia Nemeh Shomaly (EH BILDU)

Zinegotziak:

Zigor Uriondo Arrue (EH BILDU)	Aritz Abaroa Cantuariense (EAJ-PNV)
Endika Etxebarria Telleria (EH BILDU)	Idoia Platas Arenaza (EAJ-PNV)
Arantza Ormaza Tarantino (EH BILDU)	Alazne Zumeta Garro (EAJ-PNV)
Victor Uriarte Anasagasti (EH BILDU)	Kepa Zumeta Garro (EAJ-PNV)
Xabier Ortuzar Butron (GUZAN)	Ainhoa Jayo Madariaga (EAJ-PNV)
Miren Karmele Gabantxo Uriagereka (GUZAN)	Ibon Legarreta Erkiaga (EAJ-PNV)
Iker Bilbao San Nicolas (GUZAN)	Ixone Soroa Güenaga (EAJ-PNV)
Maite Caruezo Ugalde (GUZAN)	



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E800111FAD00A1S9X7W8B0V0

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 22/10/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 22/10/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 22/10/2024 13:10:21

DOCUMENTO: 20241122221

Fecha: 22/10/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E800111FAD00A1S9X7W8B0V0



Bertaratu ez direnak:

Jose Luis Arruza Alboniga-Mayor (EAJ-PNV)

Kontuhartzailea: Edurne Urrutia Uriarte**Idazkaria:** Jurdana Uriarte Lejarraga**Aztergaiak**

- 1.- Aurreko akta irakurri eta onartzea: 2024-09-26 OB (09)
- 2.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik daukaten adieraztea.
- 3.- Ondasun Higiezinaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren 8. eta 10. artikulua aldatzea onartzea.
- 4.- Sastar batze tasa arautzen duen ordenantza fiskalaren 6. artikulua aldatzea onartzea.

Presidenteak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkura hasi du eta deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaiei heldu diete. Eraitza honakoa izan da:

1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA: 2024-09-26 OB (09)

Batzarkideek 2024ko irailaren 26ko 09/2024 akta aho batez onartzea erabaki dute.

2.- BATZARKIDEEK GAI ZERRENDAKO PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIARIK DAUKATEN ADIERAZTEA.

Batzarkideek ez dute adierazi gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik daukatela.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E800111FAD00A1S9X7W8B0V0

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 22/10/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 22/10/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 22/10/2024 13:10:21

DOCUMENTO: 20241122221

Data: 22/10/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

3.- ONDASUN HIGIEZINEN GAINKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALAREN 8. ETA 10. ARTIKULUAK ALDATZEA ONARTZEA.

Alkateak aldaketaren nondik norakoak azaldu ditu, adierazi du Bizkaiko Foru Aldundiak katastroaren balioak aldatu dituela eta horrek ekarri duela udalaren Ondasun Higiezin gaineko Zergaren (OHZaren) tipoa aldatzeko beharrezana. Esan du gaitasun ekonomikoa izan dela oinarri igoera aplikatzeko eta enpresa handiei aplikatuko zaiela igoerarik handiena. Gaineratu du Alokabide sisteman sartzen direnei hobaria handitu zaiela %30etik %50era, Bermeon etxebizitzekin dagoen arazoa kontuan izanda.

Idoia Platasek adierazi du orokorrean balio katastralaren berriztapena egon dela eta Bermeoko herrian balioak jaitsi direla, %15,5 gutxitu direla batz bestea. Esan du batz bestea beheratu direla baina indibidualki beste gauza bat dela. Esan du tipoak mantentzeak udalari 526.000 euro gutxiago biltzea suposatzen diola eta udal gobernua hori konpentsatzeko tipoak igo dituela. Esan du herria pobretu dela, herriko ondarea gutxiago balio duelako, eta galera hori partekatu behar dela udalaren eta herritarren artean. Adierazi du ez daudela ados dakarten proposamenarekin.

Idoia Platasek esan du industriari karga zaiola baina gehien karga zaiela "resto" moduan agertzen direnei, %87,09 kargatzen zaielako. Gaineratu du horiek direla lurzoruak, ostatu turistikoak... Komentatu du neurri hori ezin dutela babestu eta orain arte GUZANek esan izan duela Bermeoko IBirik altuena duela eta orain %15eko igoera planteatzen dela.

Alkateak esan du herrian zerbitzu onak emateko sarrerak bermatu behar direla eta OHZatik datorrela sarrerarik handiena. Adierazi du proposamena herriaren aldekoa dela eta esan du "resto" moduan agertzen direnak IAEn salbuetsita daudela eta OHZ ordainduko dutela solik. Adierazi du salbuespenak egongo direla baina etxebizitza gehienei jaitsi zaiela eta igotzen zaien batz bestekoa 60 eurokoa dela. Alkateak gaineratu du euren ikuspuntua soziala izan dela eta horrela egin dutela azterketa.

Idoia Platasek esan du 240 euroko errezibo baten 300 eurora igotzea ez dela tontakeria, esan du Bizkaiko Foru Aldundiak katastroen potentzia udalaren esku utzi duela eta udalak



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E800111FAD00A1S9X7W8B0V0

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 22/10/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 22/10/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 22/10/2024 13:10:21

DOCUMENTO: 20241122221
Data: 22/10/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



onartu duela. Gaineratu du balioen kalkulua merkatuko balioa eta bestelako irizpideak kontuan izanda egin dela eta etxeen merkatuko balioa jaitsi dela. Komentatu du sarrerak bermatu behar direla baina ez dela zertan osotasunean konpentsatu behar izan.

Zigor Uriondok adierazi du kolektibo moduan herritarrek %2 gutxiago ordainduko dutela eta komertzioak ia %20 gutxiago. Dio kolektibo ahulenak babesten eta laguntzen daudela. Esan du balio katastrala eta merkatua beti ez doazela batera.

Idoia Platasek esan du ados daudela komertzioei ez igotzearekin, baina beste denei igotzen zaiela eta ez dutela ulertzen balio galtze guztiaren kostu osoa herritarrek asumitzea. Gaineratu du hobariarekin ados daudela.

Gaia

Ondasun Higiezinaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren 8. eta 10. artikulua aldatzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Ondasun Higiezinaren balioen ponentzia Bizkaiko Foru Aldundiko Katastro Sailak egin ostean, Bermeoko Udalerrian finkatu beharreko tipoen eta hobarien aldaketak jaso behar dira. Burututako eguneraketa horretan balio katastralak jaitsi egin direla ikusi da eta murrizketa horrek zuzenean eragiten dio OHZren oinarri zergagarriari. Ondorioz, Ondasun Higiezinaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren 8. eta 10. artikulua aldatu egin behar dira:

Ondasun higiezinaren gaineko zergari buruzko maiatzaren 18ko 4/2016 Foru Arauak hurrengoa xedatzen dau:

8. artikulua. Karga-tasa.

1. Gutxieneko karga-tasa ehuneko 0,02 izango da hiri-ondasun higiezinak direnean, eta ehuneko 0,05, berriz, landa-ondasunak direnean; aldez, gehieneko karga-tasa ehuneko 0,60 izango da hiri-ondasunen kasuan, eta ehuneko 0,50, berriz, landa-ondasunen kasuan.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatuta ahal dozu.

Kodea:
07E800111FAD00A1S9X7W8B0V0

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 22/10/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 22/10/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 22/10/2024 13:10:21

DOCUMENTO: 20241122221

Fecha: 22/10/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidea: Erregistro nagusia



2. Aurreko zenbakian xedatutakoa gorabehera, udalek karga tasa ezberdinak ezar ditzakete hiri-erabileretarako, baina muga hauen barruan betiere:

- Gehienez ere ehuneko 3,00 industria-erabileretarako (I).
- Gehienez ere ehuneko 2,00 merkataritza-erabileretarako (C).
- Gehienez ere ehuneko 1,00, baina tasa bakarrarekin, gainerako erabileretarako, bizitegi-erabilerarako (V) eta beste erabileretarako (Y) izan ezik.

Aurreko artikuluan xedatzen denerako, hiri-erabilerak zehazterakoan kontuan hartu beharko da hiri-ondasun higiezinak balioztatzeari buruz katastroko araudian ezartzen dena.

3. Aurreko zenbakietan xedatutakoa aplikatuz ateratzen diren mugak errespetatzen dituztela, udalek, hiri-ondasun higiezinaren kasuan, karga-tasa ezberdinak ezar ditzakete hiri-erabilera bakoitzerako, eraikinak balioztatzeari buruz katastroko araudian ezartzen diren erabilerak aintzat hartuta. Tasa horiek, gehienez ere, udalerrian erabilera bakoitzerako katastro baliorik handiena duten hiri ondasun higiezinaren %10ari aplikatu ahal zaizkio. Horretarako, ordenantza fiskalak zehaztuko du zer balio-atalase dagokion erabileretako bakoitzari, eta hortik aurrera aplikatu ahal izango dira, hain zuzen ere, tasa handiago horiek.

Higiezin batek erabilera bat baino gehiago badu, eraikin edo barrunbe nagusiaren erabilerari dagokion tasa aplikatuko zaio.

4. Ezaugarri bereziko ondasun higiezinak direnean, gutxieneko ordezeko karga-tasa 100eko 0,20koa izango da, eta gehienekoa 100eko 0,80koa.

Aurreko paragrafoan ezarritako mugak errespetatzen dituztela, udalek karga-tasa ezberdinak ezar ditzakete Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroari buruzko Erregelamenduaren 5 bis artikuluko 2. apartatuan aipatzen diren ondasunen talde eta azpitalde bakoitzeko.

5. Baldin eta, salbuespen moduan, katastro-balioak hainbat aldiz jarraian finkatzen edo berrikusten badira, baina ez batera, edo udalerriko higiezin askoren katastro-balioak aldatzen badira, udalak karga-tasa ezberdinak ezarri ahal izango ditu katastro-balio berria duten ondasunetarako nahiz ez dutenetarako.

6. Udalek urtero aldatu ahal izango dituzte karga-tasak, baina aplikatu behar diren urteko urtarrilaren 1a baino lehen onartuta eta argitaratuta egon behar dira.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E800111FAD00A1S9X7W8B0V0

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 22/10/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 22/10/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 22/10/2024 13:10:21

DOCUMENTO: 20241122221

Fecha: 22/10/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaada:
Erregistro nagusia



Zerga hau Bizkaiko Foru Aldundiak zuzenean kudeatzen duen udalerrietan, udalak gehienez lau hamartarrekin finkatuko ditu karga tasak.

10. artikulua. Hautazko hobariak eta errekariguak.

5. Ordenantza fiskalek zerga-kuota osoaren %50era arteko hobaria arautu ahal izango dute Eusko Jaurlaritzak duen «Etxebizitza Hutsen Programa»ren edo merkatu libreko etxebizitzaren alokairurako bitartekaritzako programan edo erkidegoaren, aldundien zein udalen beste etxebizitza-programa batzuen arloan lagatzen diren ondasun higiezinentzat.

Bigarrena: Apirilaren 2ko, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 4. eta 106. artikuluen arabera administrazio publikoek, eta zehazki, tokiko ogasunek, zerga eta finantza eskumenak dauzkate, Konstituzioaren 142. artikuluan jasotakoa bermatzeko.

“Artículo 106.

1. Las entidades locales tendrán autonomía para establecer y exigir tributos de acuerdo con lo previsto en la legislación del Estado reguladora de las Haciendas locales y en las Leyes que dicten las Comunidades Autónomas en los supuestos expresamente previstos en aquélla.

2. La potestad reglamentaria de las entidades locales en materia tributaria se ejercerá a través de Ordenanzas fiscales reguladoras de sus tributos propios y de Ordenanzas generales de gestión, recaudación e inspección. Las Corporaciones locales podrán emanar disposiciones interpretativas y aclaratorias de las mismas.


3. Es competencia de las entidades locales la gestión, recaudación e inspección de sus tributos propios, sin perjuicio de las delegaciones que puedan otorgar a favor de las entidades locales de ámbito superior o de las respectivas Comunidades Autónomas, y de las fórmulas de colaboración con otras entidades locales, con las Comunidades Autónomas o con el Estado, de acuerdo con lo que establezca la legislación del Estado.”

Hirugarrena: Abenduaren 16ko Toki Ogasunei buruzko 9/2005 Foru Arauak honakoa jasotzen du:

“7. artikulua. Udal tributuen ordenamenduen iturriak.

2. Zerga-ordenantzen bitartez, toki erakundeek beren barruko antolaketa- eta funtzionamendu araubidearen eredura egokitu ahal izango dute aurreko paragrafoaren lehen lerroaldean aipaturiko arautegia, baina egokitzapen hori ezin izan daiteke arautegi horren eduki materialaren aurkakoa.”

“15. artikulua. Zerga-ordenantzen edukia.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E800111FAD00A1S9X7W8B0V0

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 22/10/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 22/10/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 22/10/2024 13:10:21

DOCUMENTO: 20241122221

Fecha: 22/10/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia



1. Honako foru arau honetan aipatzen diren tributuak ezarri, arautu eta mantentzeko beharrezkoak diren zerga-ordenantzek eduki hauek izango dituzte, gutxienez:

a) Zerga-egitatea, zergapekoa, arduradunak, salbuespenak, txikipen eta hobariak, zerga oinarria eta oinarri likidagarria, karga-tasa edo zerga-kuota, zergaldia eta sortzapena zehaztu beharko dituzte.

b) Aitorpena eta sarrera egiteko araubideak.

c) Onespeneren data eta aplikatzen hastekoa.

2. Zerga-ordenantzen bitartez, toki erakundeek beren barruko antolaketa- eta funtzionamendu araubidearen eredura egokitu ahal izango dute aurreko paragrafoaren lehen lerroaldean aipaturiko arautegia, baina egokitzapen hori ezin izan daiteke arautegi horren eduki materialaren aurkakoa."

Erabakia

Udal Osoko Bilkurak, gehiengo osoz, EH Bilduko (5) eta GUZANeko (4) aldeko botoekin eta EAJ-PNVko (7) kontrakoekin, onartzea erabaki du:

LEHENENGOA: Ondasun Higiezinaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren **8.3 artikulua horrela aldatzea**

<Lehen: 8.3. Hiri-ondasunetan ezarri beharreko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergako karga-tasa % 0,3023koa izango da.

Nolanahi ere, hiri-erabilerengatik karga-tasa bereizi hauek ezarriko dira hiri-ondasun higiezinak balioesteko katastroari buruzko arautegian zehaztutako erabileren arabera:

- Industria-erabilerarako (I) karga-tasa % 0,6973koa izango da.

- Merkataritza-erabilerarako (C) karga-tasa % 0,4814koa izango da.

- Gainerako erabileretarako, bizitegi-erabilerarako (V) eta beste erabilera batzuetarako (Y) izan ezik, karga-tasa % 0,3207koa izango da.

Higiezin batek erabilera bat baino gehiago badu, eraikin edo barrunbe nagusiaren erabilerari dagokion tasa aplikatuko zaio.

4. Landa-ondasunetan ezarri beharreko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergako karga-tasa % 0,105ekoa izango da. >

Eta orain:



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E800111FAD00A1S9X7W8B0V0

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 22/10/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 22/10/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 22/10/2024 13:10:21

DOCUMENTO: 20241122221

Fecha: 22/10/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidea: Erregistro nagusia



8.3. Hiri-ondasunetan ezarri beharreko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergako karga-tasa % 0,3489koa izango da.

Nolanahi ere, hiri-erabilerengatik karga-tasa bereizi hauek ezarriko dira hiri-ondasun higiezinak balioesteko katastroari buruzko arautegian zehaztutako erabileren arabera:

- Industria-erabilerarako (I) karga-tasa % 0,8237koa izango da.

- Merkataritza-erabilerarako (C) karga-tasa % 0,4814koa izango da.

- Gainerako erabileretarako, bizitegi-erabilerarako (V) eta beste erabilera batzuetarako (Y) izan ezik, karga-tasa % 0,6000koa izango da.

Higiezin batek erabilera bat baino gehiago badu, eraikin edo barrunbe nagusiaren erabilerari dagokion tasa aplikatuko zaio.

4. Landa-ondasunetan ezarri beharreko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergako karga-tasa % 0,105ekoa izango da. >

BIGARRENA: Ondasun Higiezinaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren **10.artikuluko 5 atala horrela aldatzea**

<Lehen: 5. Ordenantza fiskalek zerga-kuota osoaren %30era arteko hobaria arautu ahal izango dute Eusko Jaurlaritzak duen «Etxebizitza Hutsen Programa»ren edo merkatu libreko etxebizitzaren alokairurako bitartekaritzako programan edo erkidegoaren, aldundien zein udalen beste etxebizitza-programa batzuen arloan lagatzen diren ondasun higiezinentzat. >

Eta orain:

5. Ordenantza fiskalek zerga-kuota osoaren %50era arteko hobaria arautu ahal izango dute Eusko Jaurlaritzak duen «Etxebizitza Hutsen Programa»ren edo merkatu libreko etxebizitzaren alokairurako bitartekaritzako programan edo erkidegoaren, aldundien zein udalen beste etxebizitza-programa batzuen arloan lagatzen diren ondasun higiezinentzat. >

HIRUGARRENA: Behin-behineko erabakien jendaurreko informazioa eta argitalpena egingo da 30 eguneko gutxieneko epean Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki taulan (fisikoa eta webgunekoa) eta probintziako islada handiko egunkari batean. Erreklamaziorik aurkeztu ezean, automatikoki Ordenantza behin betiko onartutzat emango da, bere testu osoa argitaratzearen kalte barik.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E800111FAD00A1S9X7W8B0V0

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 22/10/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 22/10/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 22/10/2024 13:10:21

DOCUMENTO: 20241122221

Fecha: 22/10/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia



4.- SASTAR BATZE TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALAREN 6. ARTIKULUA ALDATZEA ONARTZEA.

Alkateak esan du hurrengo urtean 7/2022 Legea indarrean sartzen dela eta ordurako sastar batze eta hondakinen kudeaketako kostu guztiak estali behar direla tasarekin. Adierazi du Bermeon %31ko igoera egin behar dela zerbitzua defizitarioa ez izateko eta hiru alderdiak akordio batera heldu direla, igoera progresiboa izateko hiru urtetan. Alkateak eskerrak eman ditu akordiora heltzeagatik eta akordioa irakurri du:

“7/2022 Legea, apirilaren 8koa, Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzekoa argitaratu zen 2022ko apirilaren 9an. Lege honek dakar, beste gauza askoren artean, sastar-batze eta hondakinen kudeaketaren kostu guztiak estaltzeko toki-entitateek tasa bat edo, hala badagokio, ondare-prestazio publiko ez-tributario bat ezartzeko betebeharra dutela, zeina bereizia eta espezifikoa izango baita beren eskumeneko hondakinekin lotuta eman behar dituzten zerbitzuetarako —tasa horrek sortutako hondakinen arabera ordaintzekoa izan beharko luke—.

Gaur egun gure sastar-batze tasatik lortzen diren diru-sarrerak ez dira nahikoa sastar-batze eta hondakinen kudeaketaren kostu osoa estaltzeko; sastar-batze tasaren ordenantza gaitasun ekonomikoan oinarrituta dago hein handi batean, eta ez, ordea, hondakinen sorreran. Legeak agindutakoa betetzeko bide luzea daukagu aurretik, bai gure ordenantzak egokitzeko, bai sortzen dugun hondakin-kopurua jaisteko, sortzen dena berrerabiltzeko eta birziklatzeko.

Hori horrela, 7/2022 Legearen helburuak lortzeko, udala osatzen dugun hiru talde politikoak akordio honetara heldu gara :

- Tasaren igoera mailakatua egitea, hiru urtean kostua estaltzera heltzeko.
- Igoera ez aplikatzea, teoriarik behintzat, hondakin gutxi sortzen dutenei eta dagoeneko tasa altua ezarrita dutenei.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E800111FAD00A1S9X7W8B0V0

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 22/10/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 22/10/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 22/10/2024 13:10:21

DOCUMENTO: 20241122221

Fecha: 22/10/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia




- Ordenantza berritzeko lanketa hastea eta, horretarako, epigrafe bakoitzari dagokion tipoa aztertu eta egin beharreko aldaketak egitea, hiru urtean legearen espiritura hurreratzeko.
- Organikoaren bilketari bultzada ematea:
- Kanpaina bat egitea organikoaren bilketa bultzatzeko.
- Ostalariak, tabernak eta jatetxeak organikoaren bilketan sartzeko lanketa berezi bat egitea.
- Edukiontzia egoera onean mantentzeko eta berriro ere giltzak martxan jartzeko egin beharreko mantentze- edo berritze-lanak egitea.
- Hondakinen sorreraren araberako ordainketara heltzeko pausoak ematea.
- Gaur eguneko edukiontzien *rentinga* bukatzen denean, kontratu berria ateratzea, baina, betiere, kontuan izanik edukiontzi berriak egokituta egon beharko direla aukera eman dezaten hondakinen sorreraren araberako ordainketa bat egituratzeko.
- Sistema hori martxan jarri ahal izateko behar diren azpiegitura eta baliabideen azterketa eta lanketa egiten hastea (azpiegitura informatikoa, araubidea...)
- Akordioaren jarraipen-bilerak egitea dagozkion teknikariek sei hilabeterik behin.”

Idoia Platasek esan du pozik daudela akordiora heltzearekin eta dio Legea 2022an argitaratu zela eta epeak estutzen daudela. Gaineratu du legearen helburua dela ahalik eta hondakin gutxien sortzea, sortzen dena ondo banatzea eta ahal denik eta gutxien botatzea grisera. Esan du eskatu izan dutela ez zentratzea bakarrik kostuen gaian. Eta gaineratu du honek suposatuko duela udalarentzako 200.000 euro gehiagoko diru-sarrera izatea.

Zigor Uriondok esan du akordio ona dela denontzako.

Nahiz eta gaia Informazio Batzordean diktaminatu, alderdi politiko guztiek hurrengo emendakina eztabaidatu eta bozkatu dute:

Gaia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E800111FAD00A1S9X7W8B0V0

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 22/10/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 22/10/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 22/10/2024 13:10:21

DOCUMENTO: 20241122221

Datea: 22/10/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia



Sastar batze tasa arautzen duen ordenantza fiskalaren 6. artikulua aldatzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2024ko urriaren 16an ez ohiko Erakunde eta Kontu batzordea egiteko beharrezana agertu da, OHZren ordenantza fiskala eta hondakinen kudeaketako tasaren ordenantza fiskala diktaminatzeko eta urriaren 22ko ez ohiko Osoko Bilkuran onartzeko.

Bigarrena: Ez-ohiko Erakunde eta Kontu Batzorde horretan, sastar batze udal-tasa, mota ezberdinetako higiezin ezaugarri espezifikoetara egokitzeko eta bilketa egokia bermatzeko epigrafe aldaketak onartzeaz gain, igoera 1., 2., 6., 7. eta 8. epigrafeetan baino ez aplikatzea proposatu da, neurria bidezkoa eta proportzionala izan dadin, hondakinen sorrera eraginkorra kontuan hartu behar delako. Hau da, igoera modu selektiboan egokitzea proposatu da, hondakinak sortzen ez dutenak nabarmen laguntzen babestuz.

Hirugarrena: Aurreko proposameneko 2. epigrafearen izen aldaketak, eta 3.2 eta 9.2 epigrafeen tasaren jeitsierak planteatu eta onartu egin dira.


Laugarrena: Epigrafe guztiak ez aldatzearen ondorioz, igoera, aurreko proposamenean baino handiagoa izango da aldatzen den epigrafe bakoitzeko. Batez beste %24 igotzen da tasa. Kalkuluen orria eranstean da.

Bosgarrena: Apirilaren 2ko, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 4. eta 106. artikuluen arabera administrazio publikoek, eta zehazki, tokiko ogasunek, zerga eta finantza eskumenak dauzkate, Konstituzioaren 142. artikuluan jasotakoa bermatzeko.

"Artículo 106.

1. Las entidades locales tendrán autonomía para establecer y exigir tributos de acuerdo con lo previsto en la legislación del Estado reguladora de las Haciendas locales y en las Leyes que dicten las Comunidades Autónomas en los supuestos expresamente previstos en aquélla.

2. La potestad reglamentaria de las entidades locales en materia tributaria se ejercerá a través de Ordenanzas fiscales reguladoras de sus tributos propios y de Ordenanzas generales de gestión, recaudación e inspección. Las Corporaciones locales podrán emanar disposiciones interpretativas y aclaratorias de las mismas.



3. Es competencia de las entidades locales la gestión, recaudación e inspección de sus tributos propios, sin perjuicio de las delegaciones que puedan otorgar a favor de las entidades locales de ámbito superior o de las respectivas Comunidades Autónomas, y de las fórmulas de colaboración con otras entidades locales, con las Comunidades Autónomas o con el Estado, de acuerdo con lo que establezca la legislación del Estado.”

Seigarrena: Abenduaren 16ko Toki Ogasunei buruzko 9/2005 Foru Arauak honakoa jasotzen du:

“7. artikulua. Udal tributuen ordenamenduaren iturriak.

2. Zerga-ordenantzen bitartez, toki erakundeek beren barruko antolaketa- eta funtzionamendu araubidearen eredura egokitu ahal izango dute aurreko paragrafoaren lehen lerroaldean aipaturiko arautegia, baina egokitzapen hori ezin izan daiteke arautegi horren eduki materialaren aurkakoa.”

“15. artikulua. Zerga-ordenantzen edukia.

1. Honako foru arau honetan aipatzen diren tributuak ezarri, arautu eta mantentzeko beharrezkoak diren zerga-ordenantzek eduki hauek izango dituzte, gutxienez:

a) Zerga-egitatea, zergapekoa, arduradunak, salbuespenak, txikipen eta hobariak, zerga oinarria eta oinarri likidagarria, karga-tasa edo zerga-kuota, zergaldia eta sortzapena zehaztu beharko dituzte.

b) Aitorpena eta sarrera egiteko araubideak.

c) Onespeneren data eta aplikatzen hastekoa.

2. Zerga-ordenantzen bitartez, toki erakundeek beren barruko antolaketa- eta funtzionamendu araubidearen eredura egokitu ahal izango dute aurreko paragrafoaren lehen lerroaldean aipaturiko arautegia, baina egokitzapen hori ezin izan daiteke arautegi horren eduki materialaren aurkakoa.”

Erabakia

Udal Osoko Bilkurak, aho batez, onartzea erabaki du:

LEHENENGOA: Sastar batze tasa arautzen duen ordenantza fiskalaren **6 artikulua** horrela aldatzea igoera **1., 2., 6. (6.8 dagoen moduan utzi) 7., 8. eta 11.7** epigrafeetan baino ez jasoteko, **2.epigrafearen izen aldaketak**, eta **3.2 eta 9.2** epigrafeen **tasaren jeitsierak** islatzeko.

6. artikulua: TASA KUOTA



a-. Hiruhileko kuota finko bat izango da tasa kuota, higiezinaren erabileraren eta bertan egiten diren jardueren arabera, honako epigrafe hauei jarraituta:

2022	2022 (€)	2025	2025 (€)
1. epigrafea: Etxebizitzak		1. epigrafea: Etxebizitzak	
1.1 Etxebizitzak	20,58	1.1 Etxebizitzak	26,47
2. epigrafea: ostatuak:		2. Epigrafea: Ostatuak	
2.1- 10 pertsona baino gutxiago	58,05	2.1- Etxebizitza turistikoak	70
2.2- 10 pertsona edo gehiago	73,96	2.2- Bestelako ostatutak (agrotusimo, hotel, apartamentu..)	80
3. epigrafea: Ikastetxeak:		3. epigrafea: Ikastetxeak:	
3.1- Ikastetxeak, Casa del Niño, lanbide heziketako zentroa eta institutua	85,59	3.1- Ikastetxeak, Casa del Niño, lanbide heziketako zentroa eta institutua	85,59
3.2- Akademiak (edozein motatakoak) eta haurtzaindegiak	80,42	3.2- Akademiak (edozein motatakoak) eta haurtzaindegiak	70
4. epigrafea: Edertasun- jarduerak:		4. epigrafea: Edertasun- jarduerak:	
4.1- Edertze aretoak, gimnasioak, ile-apaindegiak, bizartegiak eta gorputzaren hobakuntzara zuzendutako beste edozein jarduera	80,42	4.1- Edertze aretoak, gimnasioak, ile-apaindegiak, bizartegiak eta gorputzaren hobakuntzara zuzendutako beste edozein jarduera	80,42
5. epigrafea: Mediku kontsultak eta zentroak:		5. epigrafea: Mediku kontsultak eta zentroak:	
5.1- Mediku kontsultak	77,16	5.1- Mediku kontsultak	77,16
5.2- Sorostegiak, mediku zentroak, odontologia zentroak	97,05	5.2- Sorostegiak, mediku zentroak, odontologia zentroak	97,05
5.3- Anbulatorioa eta arrantzaleen mutua	97,05	5.3- Anbulatorioa eta arrantzaleen mutua	97,05
6. epigrafea: Merkataritza orokorrean:		6. epigrafea: Merkataritza orokorrean:	
6.1- Fruta- dendak	86,13	6.1- Fruta- dendak	105,13
6.2- 200 m2-rainoko supermerkatuak	158,60	6.2- 200 m2-rainoko supermerkatuak	192,09
6.3-201 eta 400 m2 bitarteko supermerkatuak	211,82	6.3-201 eta 400 m2 bitarteko supermerkatuak	255,95
6.4- 401 m2-tik gorako supermerkatuak	306,44	6.4- 401 m2-tik gorako supermerkatuak	369,5
6.5- Elikagaien arloko bestelakoak, harategiak, arrandegiak	73,08	6.5- Elikagaien arloko bestelakoak, harategiak, arrandegiak	89,47
6.6- Merkataritzako gainerako denda eta kioskoak		6.6- Merkataritzako gainerako denda eta kioskoak	
6.6.1-100m2 tik gorakoak	82,34	6.6.1-100m2 tik gorakoak	100,58
6.6.2-100m2tik beherakoak	61,75	6.6.2-100m2tik beherakoak	75,87
6.8- Botikak eta ortopediak	98,98	6.8- Botikak eta ortopediak	98,98
7. epigrafea: ikuskizun eta aisialdiko establezimenduak:		7. epigrafea: ikuskizun eta aisialdiko establezimenduak:	
7.1- Zineak eta antzokiak	79,65	7.1- Zineak eta antzokiak	97,35
7.2- Diskotekak eta dantzalekuak	104,01	7.2- Diskotekak eta dantzalekuak	126,58
7.3- Jolastokiak	73,66	7.3- Jolastokiak	90,16
8. epigrafea: Jatetxeak eta tabernak:		8. epigrafea: Jatetxeak eta tabernak:	



Sinadurea eta data

DOCUMENTO: 2024112221

Data: 22/10/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia

8.1- Jatetxeak	195,63	8.1- Jatetxeak	236,53
8.2- Kafetegiak, whiskitegiak, pubak, hanburgeseriak eta jatetxetzat hartu ezin daitezkeen jantokiak	100,57	8.2- Kafetegiak, whiskitegiak, pubak, hanburgeseriak eta jatetxetzat hartu ezin daitezkeen jantokiak	122,45
8.3- Tabernak	93,41	8.3- Tabernak	113,86
8.4- Txokoak eta erretiratuen klubak	45,73	8.4- Txokoak eta erretiratuen klubak	56,65
9. epigrafea: Bulegoak:		9. epigrafea: Bulegoak:	
9.1- Banketxeak	163,80	9.1- Banketxeak	163,80
9.2- Beste bulego batzuk, autoeskolak, loteria eta gainerako joko saltokiak	88,59	9.2- Beste bulego batzuk, autoeskolak, loteria eta gainerako joko saltokiak	70
9.3- Garraio publikoen (trena, autobusa) bulegoak	88,59	9.3- Garraio publikoen (trena, autobusa) bulegoak	88,59
9.4- Atuneroak	163,80	9.4- Atuneroak	163,80
10. epigrafea: Beste jarduera batzuk:		10. epigrafea: Beste jarduera batzuk:	
10.0- 26 ibilgailu eta gehiagorentzat lekua daukaten garajeak	101,19	10.0- 26 ibilgailu eta gehiagorentzat lekua daukaten garajeak	101,19
10.1- 4tik 26 ibilgailurako edukiera duten garajeak	80,42	10.1- 4tik 26 ibilgailurako edukiera duten garajeak	80,42
10.2- 3 edo 4 ibilgailuren gordelekua edo lokalak 60m ² edo gehiago	64,93	10.2- 3 edo 4 ibilgailuren gordelekua edo lokalak 60m ² edo gehiago	64,93
10.3- 1 edo 2 ibilgailu bakarrik gordetzeko edukiera daukanean eta lokalak 60m ² baino gutxiago daukanean	46,62	10.3- 1 edo 2 ibilgailu bakarrik gordetzeko edukiera daukanean eta lokalak 60m ² baino gutxiago daukanean	46,62
10.4- Irabazteko asmo bako auzokide elkartearen garajeak	45,86	10.4- Irabazteko asmo bako auzokide elkartearen garajeak	45,86
10.5- Zentro ofizialak eta Kofradia	94,48	10.5- Zentro ofizialak eta Kofradia	94,48
10.6- Itsasontzien lonjak	80,42	10.6- Itsasontzien lonjak	80,42
10.7- Materialak eta ekoizkinak biltzeko bakarrik diren industria eta merkataritza lokalen biltegiak	80,42	10.7- Materialak eta ekoizkinak biltzeko bakarrik diren industria eta merkataritza lokalen biltegiak	80,42
10.8- Lokal hutsak	11,54	10.8- Lokal hutsak	11,54
10.9- Nekazarien sindikatua, garraio biltegiak, ardo eta edariak banatzeko biltegiak	85,62	10.9- Nekazarien sindikatua, garraio biltegiak, ardo eta edariak banatzeko biltegiak	85,62
10.10- Petroliotik eratorritakoen zerbitzuak	81,89	10.10- Petroliotik eratorritakoen zerbitzuak	81,89
11. epigrafea: Industriak, biltegiak eta tailerrak:		11. epigrafea: Industriak, biltegiak eta tailerrak:	
11.1- Herri barruko industriak eta tailerrak	148,09	11.1- Herri barruko industriak eta tailerrak	148,09
11.2- Herri barruko jardueren biltegiak	81,34	11.2- Herri barruko jardueren biltegiak	81,34
11.4- Oinetako, altzari, tapizeria, iturgintza tailerrak	86,67	11.4- Oinetako, altzari, tapizeria, iturgintza tailerrak	86,67
11.5- Industrialdeetako industria, biltegi eta tailerrak:		11.5- Industrialdeetako industria, biltegi eta tailerrak:	
11.5.1- Industriak eta tailerrak	160,52	11.5.1- Industriak eta tailerrak	160,52
11.5.2- Biltegiak	86,67	11.5.2- Biltegiak	86,67
11.6- Ibilgailuak erakusteko eta garbitzeko lokalak	81,17	11.6- Ibilgailuak erakusteko eta garbitzeko lokalak	81,17
11.7- Gasaren Matxitxakoko lur-planta	3.492,77	11.7- Gasaren Matxitxakoko lur-planta	4.193,09
12. epigrafea: Zehazki tarifatu ez direnak:		12. epigrafea: Zehazki tarifatu ez direnak:	



Sinadurea eta data

DOCUMENTO: 20241122221

Data: 22/10/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia

12.1- Zehazki tarifatua ez direnak	46,34	12.1- Zehazki tarifatua ez direnak	46,34
13. epigrafea: Lokalak		13. epigrafea: Lokalak	
13.1- Hutsik ez dauden lokalak	34,79	13.1- Hutsik ez dauden lokalak	34,79
13.2- Etxebizitzaren eranskinak ez diren trastelekuak	8,65	13.2- Etxebizitzaren eranskinak ez diren trastelekuak	8,65

b-. Honako talde hauentzat tarifa murriztuak jasotzen dira:


Urtebetez aplika daitezkeen tarifa murriztua, Bermeoko industria-gunean ez dauden jarduera berriak irekitzeagatik. Jarduera irekitzearen aurretiazko komunikazioan eskatu behar da murrizketa hau, eskari data horretatik aurrera aplikatzeko. Bestela, murrizketa eskaria egiten den egunetik hasita aplikatuko da murrizketa, atzera eraginik gabe, eta kontuan hartuta jarduera zabaldu zeneko data. Lehenengo urte honetan % 50eko murrizketa aplikatuko da dagokion tarifa orokorraren gainean.

BIGARRENA: Behin-behineko erabakien jendaurreko informazioa eta argitalpena egingo da 30 eguneko gutxieneko epean Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki taulan (fisikoa eta webgunekoa) eta probintziako islada handiko egunkari batean. Erreklamaziorik aurkeztu ezean, automatikoki Ordenantza behin betiko onartutzat emango da, bere testu osoa argitaratzearen kalte barik.

Eta aztertzeke gai gehiago barik, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra goiburukoan aitatutako ordu, egun eta lekuan, eta eztabaidatutakoa eta erabakitakoa jasota geratu dadin, nik, idazkariak, agiri hau egin eta izenpetzen dudanak, horren fede ematen dut, lehendakariaren oniritziarekin.

Agiri hau Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazioko zenbakidun paperean jasoko da.

Oinean data eta sinadura



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E800111FAD00A1S9X7W8B0V0

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 22/10/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 22/10/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 22/10/2024 13:10:21

DOCUMENTO: 20241122221

Fecha: 22/10/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

